

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

- Gure **proiektua** Sestinnova deitzen da.
- **Enpresa mota** kooperatiba izango da.
- Gure **helburu nagusia** Sestaoko kultura, turismoa eta kirola garatzea eta sustatzea da, beraz helburu soziala da.
- Gure **ideiak** hiru atal ditu:
 - Sestaoko labe garaia eraikinean **museo** bat egingo dugu, non industrializazio garaiko antzinakotasunak ikusgai jarriko ditugu. Honekin turismoa sustatu eta Sestaoko eta inguruetakoko antzinakotasunak zabaldu nahi ditugu.



- Labe garaiko punta altuenetik **tirolina** bat egingo dugu. Tirolina lurrera ailegatuko da. Honen bidez, gazteak erakarriko ditugu eta kirola sustatuko dugu. Gainera, Sestaoko inguruko herrietan horrelakoak ez daudenez, jendea erakarriko du.



- Honekin lotuta, museoaren ondoan Nerbioi ibaia dagoela kontuan hartuz, Nerbio ibaian **uretako kirolak** egingo ditugu edozein adinetako pertsonentzat , kirola sustatzeko xedearekin. Kirol hauek izango dira *kanoak, paddle surfa* eta *pedaloak* eta irakasleak ipiniko ditugu zuen laguntzarako.



- Sestaotik Done Jakue bidea pasatzen denez, **aterpetxe** bat egingo dugu, non erromesek eroso lo egiteko eta jateko aukera izango dute prezio egokian. Honekin turismoa eta Done Jakue bidea sustatuko dugu.

